

Kirola eta balio etikoak

(Promotion of ethic values on sport)

González Aramendi, José Manuel

Virgen del Pilar Osasun Zentroa. Paseo Zarategi, 10.

20013 Donostia

aramendi@infonegocio.com

BIBLID [1137-4447 (2006), 15; 205-213]

Jaso: 06.10.23

Onartu: 06.11.24

Benetako kirolean, arau etikoak ezinbestekoak dira kirol-praktikaren zentzua galduko ez bada. Kirolariok eta kirolaren inguruan lan egiten dugunok kirolariak, kirola, jokoa, eta aldi berean geure burua errespetatu beharra daukagu. Ezin ditugu kirola eta kirolariak gure izena ezagutarazteko erabili; emaitza onak lortu nahiak ezin gaitu baldintzatu, kirol-jarduerak kirola definitzen duten baloreak izan behar baititu oinarri.

Giltza-Hitzak: Kirola. Baloreak. Etika. Errespetua. Konpromisoa.

En el auténtico deporte las reglas éticas resultan imprescindibles si no queremos que la práctica deportiva pierda su sentido. Los deportistas y los que trabajamos en este ámbito debemos de respetar simultáneamente el deporte, el juego y a nosotros mismos. No podemos utilizar el deporte ni a los deportistas para darnos a conocer; el deseo de lograr buenos resultados no nos puede condicionar, ya que la práctica deportiva ha de basarse en los valores que definen el deporte.

Palabras Clave: Deporte. Valores. Ética. Respeto. Compromiso.


Dans le sport authentique, les règles étiqes sont indispensables si nous ne voulons pas que la pratique sportive perde son sens. Les sportifs et nous qui travaillons dans ce domaine devons respecter simultanément le sport, le jeu et nous-mêmes. Nous ne pouvons pas utiliser le sport ni les sportifs pour nous faire connaître; le désir d'obtenir de bons résultats ne peut pas nous conditionner, car la pratique sportive doit se baser sur les valeurs qui définissent le sport.

Mots Clés: Sport. Valeurs. Etique. Respect. Engagement.


Kirolari buruz hitz egin, egunero hitz egiten da. Baina emaitzak, sailkapenak eta transzendentziarik gabeko gertakizunei buruzko kontuak izaten dira, oro har, kirol prentsan espazio eta denborarik gehien betetzen dutenak; horiek izaten dira elkarrizketa eta eztabaidagai.

Hurrengo irudietan gure inguruan tiradarik handien duen egunkariak gai horiei zenbateko espazioa, hau da, orri kopurua, eskaintzen dien ikusten da.

1. Irudia



2. Irudia



Zientzia eta hezkuntzarekin zerikusia duten gaietara eskasa eskaintzen zaie, eta kirolari gazteei bizimodu osasuntsua eta kirol-ohitura egokiak irakasteko balio lezaketen esperientzia baikorrei dagokienez ere, gauza bera esan daiteke. Dena dela, gogoeta hau ez da komunikabideen aurkako kritika, informazio

eta iritzi publikoarekin zerikusia duten elementu guztien inguruan eginiko gogo-eta kritikoa baizik.

Hartzaileak besterik eskatzen ez badu ere, kirolak eta ariketa fisikoak badute interes sozial handiagoko edukirik.

Futbol zelaian dauden jokalariaik, askotan, herrialde askoren osasun, hezkuntza eta jateko beharrak baino garestiago dira. Diruak, ikuskizunak, propagandak, kirol lehiaketak eta lehiaketarako prestakuntzak, kirolaren esentziaren, hau da, kirol espirituaren galera eragin dezakete.

Kirol ikuskizuna, alde batetik, gutxi batzuen kristalezko jauregi pribatu bihurtu da. Eta bestetik, penak arintzeko, ilusioak sortzeko eta samintasuna kanpotatzeko ihes-balbula eta sasierlijioa da.

Kirol ikuskizunari dagokionez garrantzitsuena helburua da, eta honek berau lortzeko erabili beharreko bitartekoak eta egin beharreko bidea baldintzatzen ditu. Kirolean, emaitzak eta lor litezkeen bestelako onurak, hala nola, dirua, fama eta loria, lortu nahiak, sarritan, “edozer” edo “beharrezkoa dena” egitera bultzatzen dute. Metodoari eta emaitzak lortzeko bide egokiari jaramonik ez egiteak, ezinbestean, kirolaren merkantilizazioa dakar, eta norbanakoak ez ezik, kirol taldeek, herriek, nazioek eta estatuak ere horretan parte hartzen dute.

BESTELAKO KIROLA BADAGO

Alberto Vázquez-Figueroa ondorengoa dio *Un mundo mejor* nobelan: “Nik seme-alabentzako eta bilobentzako mundu hobea nahi dut, baina oso garbi daukat ez dela inoiz hala izango, aldi berean, ezer ez dutenen seme-alabentzat eta bilobentzat ere hobea ez bada”.

Nik kirol hobea nahi dut., eta ziur nago beste askok ere hala nahi dutela. Munduko haur eta gazte guztien eskubidea den kirola, baloreez betetako KIROLA... la inork aipatzen ez duen kirola.

Gaur kirol horri buruz hitz egiteko, pentsatzeko eta eztabaidatzeko aukera daukagu. Bizitza eta ongizatearen parte den kirolari buruz, geure buruarekin ditugun konpromisoak betetzeko eta ilusio, zein esfortzuak partekatze bitarteko den kirol horri buruz hitz egiteko aukera. Gizakian oinarritutako kirolari buruz; gizatiartzeko gaitasuna daukan kirol horri buruz... Horregatik, gai honi buruz hitz egitera gonbidatzeagatik, eskerrak eman nahi diot Eusko Ikaskuntzari.

Kirolean eta kirolaren bidez balore etikoak sustatzeari buruz jarduteko, giro lasaia eta baketsua behar dugu. Herman Melvillek, *Moby Dick* liburu zoragarrian ondorengoa idatzi zuen: “Pentsatzeak patxada eta lasaitasuna eskatzen ditu, hala izan behar luke, behintzat; baina gure bihotz gaixoen taupadak bizkorregiak dira, eta gure garun gaixoak ere bizkorregi dabilta horretarako”.

Hasteko, etika, morala, eta baloreak zer diren nahiko garbi izan behar genuke. Etika, moral, eta balore kontzeptuek oinarri bera dute, eta desberdinak izanagatik, askotan esanahi bera izango balute bezala erabiltzen ditugu. Hitz hauen definizioek, beharbada, esku artean dugun gaia lantzen lagunduko digute.

Etika gizakiaren aktibitatea erregulatzen duten printzipio eta arau moral multzoa da. Morala ohiturei edo portaera-arauei dagokie. Eta balorea, berriz, ustez onak diren ezaugarri (ezaugarri fisikoei, adimenari edo moralari).

Balioak subjektiboak eta objektiboak izaten dira. Norbanakoaren mentalitatearen eta jarreraren menpe daude, baina baita kanpoko arauen menpe ere. Moralari dagozkien arauak, bai geure barrutik, bai ingurutik sortutakoek, oro har, gure jarrerari eragiten diote. Arau horiek, aholku, betebeharrak, zein debeku moduan, gizakiaren jarrera orientatzen, bideratzen eta mugatzen dute.

Kirolean, kirolari bakoitzaren arau etikoak ez ezik, kanpoko arauak, hau da, kirol erakundeek sortu eta onartutako arauak, ezinbestekoak dira, alde batetik lehiaketak, nahiz entrenamenduak ondo bidera daitezen, eta bestetik kirol-praktikaren zentzua gal ez dadin. Horrela, etika eta arauak, bata barrutik eta besteak kanpotik, kirolari bakoitzaren jarrera gidatzen saiatzen dira.

Kirolariok arau etikoak eta kanpoko arauak, biak, behar ditugu. Sinetsita, eta ondorioz, kirolari izatea zer den jakinda bete behar ditugu. Ezin ditugu arauak ahaztu, bestela, gure kirola mesedegarri, baliagarri eta antolatua izatetik zentzugabekeria hutsa, izatera pasako litzateke. Ezin diogu kirolari gisa dugun konpromisoa ahaztu, kirolari izateari utziko genioke eta.

Nire ustez, benetako kirolaren ondasun nagusiak oinarrian dituen balio etikoak dira. Izan ere, balio horiek guztion esku daude, ez dute inor baztertzeko eta ez daude emaitzen edota sailkapenen menpe. Horretaz gain, betiko dira eta denboraren poderioz ez dute baliorik galtzen. Balio etikoekin beti irabazten dugu. Hori dela eta, nire iritziz, altxor hau zaindu eta goratu behar dugu, eta kirolarekin oraindik gozatzen ez dutenei eskaini behar diegu, bereziki haur eta gazteei. Ez dut zalantzarik, eta beste askok ere hala uste dute.

Baina kirol-balio, kirol-etika eta kiroltasunaren inguruko jarduna ez da jardun estatiko eta dotore gisa erabili behar. Egoera dinamikoa da eta etengabeko arreta eta analisisa ez ezik, eguneroko praktika kontsekuentea eskatzen du; benetako konpromisoan oinarritu eta etengabe aurrera egitea, alegia.

Kirol-jarduerak kirola definitzen duten baloreak izan behar ditu oinarri. Eta balore horiek, kirolari, zein kirolarien laguntzaileoi, beti, etikoki zuzenak diren erantzunak eskatzen dizkigute. Erantzun horiek kirolariaren barruan jaio behar dute, inguruko eskakizunetatik aske, momentuak edo inguruak eragin gabe.

Euskaldunok jarrera hau ulertzen lagunduko diguten bi printzipio edo portaera-arau dauzkagu. Bata "*nork bere buruarekin zintzo eta leial jokatzeko*" da eta bestea "*norberak besteekin zintzo eta leial jokatzeko*". Bi printzipio horiek biltzen dituen jarrera gai honen osagai etikoa litzateke.

Honetaz gain, kirolari eta kirol munduko pertsona gisa dugun konpromisoak, edonoiz eta edonon kirolari erabateko errespetua izatea exijitzen digu. Jarrera horrek, besterik ez bada ere, kirolaren arauak onar eta obedi ditzagula eskatzen du; eta zorrotzago jokatzuz gero, momenturo nobleak izatea, eta bide batez, kirolaren arauai balio handiagoa ematea. Hori guztia osagai moralala litzateke.

Kirolak pertsonari on egiteko balio behar du. Ideia hau abiapuntu gisa hartu behar genuke. Hortaz, min egiten duen kirola zilegi al da? Eta kirolariari kalte egiten diona? Hori kirola al da? Ez ote da kirol-espiriturik gabeko lehiaketa, edo lehiaketarako prestakuntza?

Kirolak beti helburu hauek izan behar ditu:

- Pertsonaren gaitasun fisikoa eta mentala mantendu eta hobetzea.
- Kirolariak bere buruarekiko konfiantza eskuratu edo indartzea.
- Pertsonen sozializazio eta integrazio-prozesuak erraztea.

Kirolaren hizkera unibertsala da. Musikaren modukoa, guztiontzat ulergarria. Kirolak aipatutako balore sakon horiek erraz transmiti ditzake, eta era berean, adiskidantza loturak eta elkarbizitza sendotzeko, nahiz bake-prozesuak erraztu eta finkatzeko ere balio dezake. Kirolak jatorri, kultura, klase eta pentsamolde desberdineko gazte, zein helduak, elkar eta batera ditzake.

Kirol-jarduerak, onuragarria izango bada, gizakian oinarritu beharra dauka. Pertsona zentratua egon behar du eta gizakiarenganako zein, kirolariarenganako errespetua ditu oinarri. Hortxe dago koska.

Errespetu faltak arazoak eragiten ditu. Baina, zer esan nahi dugu kirolariarekiko errespetu eza aipatzen dugunean? Pertsonaren egokitze-gaitasun naturalaren gainetik dauden lehiaketak edo entrenamenduak antolatzea errespetu falta da; baita lesio-arrisku handiko lehiaketa edo entrenamenduak antolatzea, edo larritasun-maila handiegia eragiten duten jarduerak antolatzea ere... Estres horrek kirolaria ez errespetatzeaz gain, kirolari onari ez dagozkion jarrerak eragin ditzake, hala nola, jarrera oldarkorra adieraztea, edota substantzia dopatzaileak, nahiz drogak hartzea.

KIROLARI GUZTIAK ERRESPETATU BEHARRA

Kirolariak, edozein kirolarik, zuzen eta errespetuz tratatua izateko eskubidea du. Kirol-lagunek, aurkariak, entrenatzaileak, zuzendariak, komunikabideak, zein publikoak hala tratatu behar dute.

Kirolariok, beste kirolarien beharra daukagu, kirola mantenduko badugu; aurkarien beharra, jokatu eta geure burua probatuko badugu; helburu bateratuen beharra, lehiatuko badugu.

Entrenatzaileek, zuzendariak, laguntzaileek eta, besteak beste, ikusleek ere kirolarien beharra daukate, kirola euren artean izan eta kirolarekiko mantendu nahi duten lotura hori eten ez dadin.

Errespetuak edozein kirolari onartu eta baloratzea, berezitasunak aztertzea, onartzea eta toleranteak izatea eskatzen du. Kirolak sozializazio eta integrazio-prozesuak bultzatzeko gaitasuna du, baina horretarako ezinbestekoa da hain onak ez direnak, nahiz baldarrak ez mespretxatzea eta jarrera xenofoboak ez onartzea.

Kirolaria errespetatzeak kontuz ibiltzea eskatzen du. Biolentzia eta erasorik gabeko kirola, hau da, kirol segurua egiteko konpromisoa. Kirolariak beste kirolariari kalte egin diezaieketen ekintzak saihestu behar ditu; izan ere, partida batean egindako sarrera bortitzak, txirrindulari-sprint bateko ukalondokadak, edo edozein kolpe txarrek kirolari kaltetuaren aukerak betiko zapuz ditzake.

Eta ez hori bakarrik. Kirolak segurua izateaz gain, ongizatea ekarri behar du eta batez ere haur, nahiz gazteei gizaki oso izatera iristen lagundu.

KIROLA ETA JOKOA ERRESPETATU BEHARRA

Baina kirolariarekiko errespetua ez da nahikoa. Kirolaria ez ezik, jokoa ere errespetatu behar da. Horrela jokoaren, zein kirolaren balioa goratuko da.

Futbol partida bat jokatzeko ez da baloi bati ostikadak ematea bakarrik; traineru batean arraunean egitea ez da arrauna mugitzea bakarrik; zertxobait gehiago da. Ekintza hauek, kirola espresio artistikoa, edo ia artistikoa izango bada, dotorezia eskatzen dute.

Kirola errespetatzeak jokoa, definitzen duten arauak onartzea eta betetzea eskatzen du; kirolariak eta kirolarientzat sortutako arauak betetzea.

Kirola errespetatzeak ongi jokatzeko eta hobe izaten saiatzeko konpromisoa eskatzen du. Kirolari eta entrenatzaile guztiek, entrenamendu bakoitzean eta lehiaketa bakoitzean gero eta hobeak izaten, eta beren trebetasunak adierazten saiatu behar lukete.

Baina, hori bai, kirola jokoa dela ahaztu gabe; izan ere, kirolaren helbururik nagusienetarikoa ondo pasatzea da, eta dibertsiorik ezean kirolaren funtsa desagertu egingo litzateke.

NORK BERE BURUA ERRESPETATU BEHARRA

Geure burua errespetatzeko geure burua baloratu egin behar dugu, eta era berean, geure buruarekin leial jokatu. Horretaz gain, geure gorputza zaindu behar dugu, lehiaketaren balizko interesak lortu nahian osasuna eta segurtasuna arriskuan jarri gabe.

Geure buruarekiko errespetuak osotasun morala eta zintzotasuna eskatzen ditu. Hartutako konpromisoak eta emandako hitza bete behar ditugu; baita oraindik eman gabekoa ere. Kirolak, beraz, trebetasun fisikoez gain, adimen gaitasuna eta balio morala ere agirian uzten ditu.

Benetako balioa norbera hobetzeko gogoak du, eta ez besteek eragindako hobetzeko behar artifizial eta desleialak. Desio hori barru-barrutik ez badator, emaitzek, sailkapenak eta errekorrek, ba al dute inongo zentzurik?

Kirolariak gaitasun fisiko eta moralez gain, esfortzua eta adorea ezinbesteko ditu. Eta ez hori bakarrik. Entrenatzaile, teknikari eta beste laguntzaileen aholkuak ere behar ditu; eta entrenatzeko, nahiz lehiatzeko beharrezko dituen instalazioak eta ekipamendua eskaintzen dizkion kirol-sistema ere behar du.

Zoritxarrez, gizarte lehiakor honetan kirolari askok ez dute gainditze pertsonal eta integralarekiko inongo interesik; azkar eta erraz aurrera egitea dute helburu, eta horretarako epe laburrean emaitzak lortzen lagunduko dieten zerbait eskatzen dute. Ez dute aholku onik nahi, ez dute etika eta balioei buruzko arrazoietan sinesten. Konponbidea teknologia eskaintzen die... eta dopinak.

Gure gizarteak, eratu dugun kirol-sistemak, beste ezer baino gehiago emaitzak saritzen ditu. Zientzia eta teknologia kirolariaren zerbitzura baino gehiago, kirolaren menpe daude. Kirol espezialitate gehienek aurrerapen zientifiko eta teknologikoen gehiegizko menpekotasuna dute eta ondorioz, kirolaren esentzia sustatzen ez badugu, etorkizunean menpekotasun hori handiagoa eta artifizialagoa izango da.

Kasu gehienetan, kirol praktikaren tranparik eraginkorrena dopina izaten da. Ez naiz dopinaren gaian sakonki sartuko, baina azalpen pare bat eman nahi nituzke.

Lehenengo harria jarri zutenetik 29 urtera mendebaldeko eta ekialdeko alemaniarrek Berlingo murrua bota ondoren, antzinako Alemaniako Errepublika Demokratikoan agertu ziren gobernuaren hainbat dokumentu klasifikatu agertu ziren. Dokumentu haiek gobernuak goi mailako kirolean drogak, batez ere este-roide anabolizatzailek, nola erabili zituen deskribatzen dute. Dokumentu sekretuak ziren, besteak beste, doktorego-tesiak, beken jarraipenerako txostenak, adi-tuen sinposioetako eta Stasiren, hau da, Estatuko Segurtasun Ministerioaren, laguntzaile ez ofizialak izan ziren mediku eta zientzialarien txostenak. Werner W. Franke eta Brigitte Berendonek, orain dela zortzi urte horren inguruko artikulua bat argitaratu zuten: "Hormonal doping and androgenization of athletes: a secret program of the German Democratic Republic government" (Clinical Chemistry 43: 1262-1279, 1997).

1966tik 1990era, ehunka mediku eta zientzialarik, Stasiren agindupean, substantzia dopatzaileekin eta bestelako drogekin ikerketak egin zituzten. Milaka kirolari, gizon, emakume eta haur, giza akuri moduan erabili zituzten. Neurri-gabeko entrenamendu-programak bete behar izan zituzten eta droga kantitate izugarriak hartzera behartu zituzten.

DDRk, 17 milioi biztanleko herrialdeak, bost Joko Olinpikotan hartu zuen parte, eta 409 domina irabazi. Izugarria. Dopin programa izan zen, batez ere, domina haiek guztiak irabazi izanaren arrazoia.

Baina, domina haiek, nori egin zioten mesede? Garai hartan, artean umeak baino ez ziren kirolari haiek, orain hogeita hamar edo berrogei urte baino gehiago dituzte, asko traizioa dela eta lur jota daude, osasun arazo larriak dituzte edota langabezia bizi dira. Ehunka kirolari ohi, Alemania bateratuko oraingo gobernuari laguntzak eskatzen ari dira. Baina kaltetuen zati txiki bat besterik ez dira, guztira 10.000 inguru izan bailitezke. Guztien iritziz, hura ez zen kirola, kirolari moduan etorkizun handia izan zezaketen gazteen osasuna sakrifikatzen zuen sistemaren gehiegikeria baizik.

Berlingo murrua erori eta gero, kirol mediku eta entrenatzaile askok Txinara ihes egin zuten, eta gaur egun, txinatar kirol sistemaren entrenamendu programak DDRkoen oso parekoak diren susmoa dago. Liu Dan jauna, Pekineko Kirol Zientziaren Txinatar Institutuko ordezkaria, orain dela gutxi Donostian egin zen kongresu batean izan genuen; ez zuen gure zalantza argitu, ordea.

Kirolaren inguruan lan egiten dugun guztiok kirolariari laguntzeko gaude eta entrenatzaile, prestatzaile, zuzendari, kirol mediku eta gainerakoek, ezin dugu kirolaria gure izena ezagutarazteko erabili. Ezin dugu, emaitza onak lortzearen, edonola jokatu; hain onak ez diren jokalariek ezin ditugu hobetzeko aukerarik eman gabe baztertu... ezin ditugu dopina eta tranpak onartu. Gure jokaerak erabat bestelakoa izan behar du. Kirolariari lagundu egin behar diogu, edozein kirolari. Gure ekintza guztiek baikorrak, mesedegarriak eta arrazoituak izan behar dute.

Kirol-mediku naizen aldetik, nire lanbide berean dabiltzan bata zuriz jantzitako medikuei kirol ekintzetan gehiago parte har dezaten eskatu nahi nieke; kirolariaren bizitza zaindu behar dugu, bai kirol-bizitzan, bai ondoren. Gure lanak ahalik eta onena izan behar du; akatsik gabekoa, alegia.

Lanbide honetan dabiltzan beste askok ere konpromiso hori bera eskatzen dute. Andrew Pipek eta Thomas Best-ek, *Drugs, Sport, and Medical Practice* editorialean (*Clinical Journal of Sport Medicine Medicine*, 12:201-202, 2002) hauxe idatzi zuten: "Kirol-mediku eta zientifiko guztiek dopin-praktiketan parte ez hartzea erabakitzeak, kirola gizakien arteko lehiaketa izaten jarraitzeko aukera paregabea eskainiko luke; gizakien arteko lehiaketa, eta ez laborategiko prestakinen edota ingeniariaritzaren genetikoak edo polifarmaziak sortutako produktuen artekoa".

The American College of Sports Medicine bezalako zenbait mediku-elkartek, kode etikoa daukate. Euskal Herriko kirol medikuok ere horixe behar dugu, kode etiko espezifiko eta konpromisoa, alegia.

Oreki Fundazioan lan horretan dihardugu. Kirolari, entrenatzaile eta besteak beste, gurasoentzako, Kode Etikoak sortu ditugu, beste elkarte batzuetako prin-

tzipio-deklarazio eta kode etikoen antzekoak diren kode etikoak. Jardunbide Egokiaren Deklarazioa eta Konpromiso Kontratuak ere sortu ditugu, kirol taldeek eta klubek izan beharreko jarrera etikoa adierazteko, eta kirolari eta klubaren arteko harremanak etikoki bideratzeko.

Kirolariak eragile dopatzaileak baztertzea aukera etikoa da. Besteok kirolaria dopin substantziak hartzea ez bultzatzea eta joko garbia, errespetua eta kirolaren baloreak sustatzea ere aukera etikoa da.

Drogak gure gazteriak duen onena hondatzen uztea erokeria da. Baita dopinaz kutsatutako kirola txalotuz, gure kirola hondatzen eta kirolaren esentzia galtzen uztea ere.

Nahiz eta gure indarra, gizabanako eta lan-talde gisa, mugatua izan, ildo honetatik jarraitu beharra daukagu. Ez daukagu gauzak dauden bezala jarraitzen utzerik. Ezin dugu egungo egoera besterik gabe onartu. Arazoari erantzun egokia eman behar diogu.

Hurrengo esaldia Miguel Pelay Orozcok, Jorge Oteizari eskaini zion “Oteiza” liburutik hartu dut: “Gauzak bere garaian egin eta esan behar dira; argi eta garbi, itzulgingururik gabe, luzamendutan ibili gabe”.

Ez ahaztu. Hartzen ditugun erabakiek definitzen gaituzte. Nolako aukerak egin ditugun, halako pertsonak, halako erakundeak eta halako herriak gara. KIROLARI izatea aukera dezagun. Ez dugu heroiarik behar; kirolari onak, ikasle onak eta jende ona behar dugu.

BIBLIOGRAFIA

FRANKE, W. W.; BERENDONEK, B. “Hormonal doping and androgenization of athletes: a secret program of the German Democratic Republic government”. In: *Clinical Chemistry* 43, 1997; pp. 1262-1279.

PIPE, A.; BEST, T. “Drugs, Sport, and Medical Practice”. In: *Clinical Journal of Sport Medicine*, 12, 2002; pp. 201-202.

The American College of Sports Medicine. *Code of Ethics*.

COMITÉ INTERNATIONAL OLYMPIQUE. *Code Medical du Mouvement Olympique*.

OREKI FUNDAZIOA. *Kode Etikoak, Jardunbide Egokiaren Deklarazioa eta Konpromiso Kontratuak*.

THE CANADIAN CENTRE FOR ETHICS IN SPORT. *A Guide to Moral Decision Making in Sport*.

GONZÁLEZ ARAMENDI, J. M. “Ética para un deporte digno”. En: GONZÁLEZ ARAMENDI, J. M. *Actividad física, deporte y vida*. Fundación Oreki- Editorial Ostoa, 2003.

SETIÉN, José M^º. *Reconocer las limitaciones de la libertad*. Obras Completas. Idatz Argitalpenak, 1998.